

Trake antzerki taldea

Antzezle gazteez osatutako talde honek 'Beldur Barik' saria irabazi zuen 2010ean, taldekideek sortutako lanarekin. Antzerkia egiten ondo pasatzea da euren helburua eta ostiralero biltzen dira Lobianon. Antzoki berriaren inaugurazioan, nola ez, parte hartu dute.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

1998. urtearen inguruan jaio zen taldea. Aurretik ez zegoen gaztetxoan antzerki talderik herrian.

- Zenbat kide zarete?

Gaur egun 10 lagun gara eta horietatik 4 hasieratik gaude taldean. Hamabi urte hauetan gorabeherak egon dira kide kopuruan eta hasieran, esaterako, 20 lagun baino gehiago ginen.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gure helburua antzerkiarekin ondo pasatzea da; gustatzen zaigun zerbaitekin ondo pasatzea, alegia. Taldea sortu zenean, eskolaz kanpoko ekintza guztiak kirolarekin zuten zerikusia eta antzerki taldea sortzeak beste aukera bat eskaini zigun. Gainera, lotsa kentzeko eta lagun berriak egiteko oso baliagarria da antzerkia.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?



Ostiralero entseatzan dugu, 17.00etatik 19.00etara, Lobianon. Hasieran Ongaraiko eskolen gimnasioan entseatzan genuen eta horren ostean Musika Eskolak Zineman zituen lehenengo geletan egon ginen bi urtez. Bestalde, entsegu eguna aldatzen saiatu gara batzuetan, baina ezinezkoa izan da.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urtean antzezlan bat prestatzen dugu. Horretaz gain, Udalak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzen dugu, herriko gainontzeko antzerki taldeekin batera. Egun hauetan, Antzokiaren inauguraziorako prestatu dugun lanarekin ari gara.

- Txangoak egiten dituzue?

Ez, baina askotan entseguetatik kanpo elkartzen gara, batzuk koadrila be-

rekoak garelako. Joan den azaroan Emakumearen Topalekuak antolatutako 'Beldur barik' lehiaketan parte hartu genuen. Inprobisazioetan oinarritutako antzezlanak sortu genuen guztion artean, 'Un bolero para ti', eta horri esker 1. saria irabazi genuen (Egara musika taldearekin batera). Lehiaketan jaso genuen diruarekin irteeraren bat egiteko asmoa dugu, landetxe batera agian...

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Parte hartu nahi dutenek taldeko zuzendariari deitu beharko diote, Juan Carlos Colinari, 699582300 telefono zenbakira. Trake talde irekia da eta momentu honetan ordezkoen bila gabiltza: 16 eta 20 urte bitarteko gazteak behar ditugu, animatu!

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40
Zubiare, 12

Tel. 17 00 63
Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOGEGIA

TRAHICEN CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
bereizitasuna

943 17 39 78